



EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIARI EZ  
NO A LA VIOLENCIA  
CONTRA LAS MUJERES

## AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO  
NAZIOARTEKO EGUNA”

2579 141 25 91 5 1 1 55 1 1 9 41 5 91 9

### B

*Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera-estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde.*

### M

*Era berean, berresten dugu badaoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoak dira hurrengo hauek: Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa.*

### B

*Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke ezinbestekoa da erreparazio-eskubidea. Horretarako, eskura izan behar*

*ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik.*

## M

*Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.*

## B

*Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irteerakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak sistematikoki aztertuz.*

## M

*Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:*

- *Gure konpromisoa agenda politikoan indarkeriak eragindako emakume-biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketasartzeko, guztiz osatu daitezten eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.*

## B

*Gure konpromisoa udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko emakumeen kolektiboekin, kolektibo feministekin eta gizarte zibilarekin eta herritarrekin batera.*

## M

*Gure konpromisoa gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko, hartara herritarrak, erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatuz daitezten.*

## B

*Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezzen, emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazteko*

## M

*Horregatik, Lekeitioko Udaletik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:*

## M

## B

*Lekeitioko Udal honek, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, Emakumea eta Berdintasun Zerbitzuari beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkio eta zerbitzua egonkortzen eta indartzen joateko konpromisoa hartzen du.*

## B

*Lekeitioko Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.*

## M

*Lekeitioko Udal honek herriko hezkuntza agentzei zuzeneko deia egiten die genero-berdintasunaren alde udalarekin egiten duten elkarlana mantentzeko konpromisoarekin jarraitu dezaten.*

- 1. Erakunde honetatik, hau da, udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.*

## B

*Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin,  
eta jendarte osoari ere dei egiten diegu mobilizazio horretan parte har dezan.*

*Lekeition, 2017ko azaroaren 9an.*